

2.- Matrikula ikasturte osorako egin orde, modulu egiten bada, prezioa ratio honen arabera ezarriko da: 12.000 PTA/ 15 eskola-orduko (72,12 euro/15 eskola-orduko).

3.- Jardunaldi espezializatuetarako matrikuletan prezio bakarra izango da: 15.000 PTA/pertsonako (90,15 euro/pertsonako), unibertsitateetan matrikulatoriko ikasleentzat izan ezik, horiek pertsonako 5.000 PTAko (30,05 euroko) beherapena izango baitute.

4.- 3. idatz-zatian jasotako prezioak %33raino garestitu ahal izango da, jardunaldien ezaugarriengatik (gaiaren berezitasunengatik, erabili beharreko hizkuntzengatik, etab.) irakasle edo teknika bereziak (ordenagailuak, bideokonferentzia, bapateko itzulpena, etab.) behar badira.

5.- Beste erakunde batzuekin burutzen diren jardunetan (ikastaroak, mintegiak, eta abarretan) prezioak aurreko arauei jarraikiz aterako dira, baina horrek ezertan galarazi gabe, beste erakundeak ere, ezarriak dituen arau propioen araberrako eskubideak kobratu ahal izatea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko urriaren 24a.

Garraio eta Herri Lan sailburua,  
ALVARO AMANN RABANERA.

#### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

##### Zk-4868

212/2000 DEKRETUA, urriaren 24koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasbazterrean arrantza-tresna xumeekin egiten den arrantza arautzen baita.

Abenduaren 20ko 3760/92 (EEE) Erregelamenduak Europako Batasunarentzako arrantza eta akuikultura araubidea ezarri du, eta Europako Batasuneko arrantzapolitikaren helburu nagusia finkatu, hots, itsas-baliabideak babestu eta zaintzea, eta horien ustiapen arazoizkoa eta zentzuduna antolatzea, oinarri jasangarri baten gainean, sektorearentzako baldintza ekonomiko egokietan, itsas-ekosisteman izango duen eragina go-

2.- Cuando las matriculaciones se efectúen mediante el sistema de módulos independientes, el coste de realización de los mismos vendrá establecido en relación al número de horas impartidas en función de la ratio siguiente: 12.000 PTA/15 horas lectivas (72,12 Euros/15 horas lectivas).

3.- El precio de la matrícula para la realización de jornadas especializadas será único de 15.000 PTA/persona (90,15 Euros/persona), salvo para los estudiantes de Facultades o Escuelas matriculados en las Universidades, que tendrán una bonificación de 5.000 PTA/persona (30,05 Euros/persona).

4.- El precio recogido en el apartado 3 podrá ser incrementado hasta un 33% en aquellas actividades que por sus peculiares características (especificidad del tema, idiomas de impartición) requieran un profesorado o técnicas especiales de desarrollo (ordenadores, videoconferencia, traducciones simultáneas, etc.).

5.- En aquellas actividades (cursos, seminarios, etc.) que sean realizadas conjuntamente con otras Instituciones, las matrículas se calcularán conforme a las normas anteriores y ello sin perjuicio de que por parte de la otra institución se proceda al cobro de los derechos que en sus propias normas tengan establecidas.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de octubre de 2000.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,  
ALVARO AMANN RABANERA.

#### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

##### Nº-4868

DECRETO 212/2000, de 24 de octubre, por el que se regula el ejercicio de la pesca con artes menores en el litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Reglamento (CEE) 3760/92, de 20 de diciembre, por el que se establece un régimen comunitario de la pesca y la acuicultura, fija como objetivo general de la Política Pesquera Común, la protección y conservación de los recursos marinos y la organización, sobre una base sostenible, de la explotación racional y responsable de los mismos, en condiciones económicas apropiadas para el sector, teniendo en cuenta sus repercusiones en

goan hartuta, eta produktoreen eta kontsumitzaileen beharrianak bereziki kontutan izanda.

Ur komunitarioetan —horien artean, 3. eskualdekoak, non Bizkaiko itsasoko eta Iparmendebaldeko arrantza-tokiak sartzen baitira— mailasareen mailen gutxieneko neurriak arautzeko, Kontseiluak martxoaren 30eko 850/98 (EE) Erregelamendua eman du. Arau horrek arrantza-baliabideak zaintzea du xede, itsas-organismoen ale gazteak babesteko neurri teknikoan birtutez.

Era berean, azaroaren 7ko 1683/1997 Errege Dekretuak hauxe arautu du: Bizkaiko itsasoko eta Iparmendebaldeko arrantza-toki nazionalaren kanpoko uretan arrantza-tresna xumeekin egiten den arrantza. 1998ko urriaren 1eko Aginduak, berriz, arrantza-plana ezarri du Bizkaiko itsasoko itsasbaterreko alde jakin batean, kontutan hartuta Gipuzkoa eta Bizkaiko arrantzategietako berezko espezieak, eta arrantza-modu tradizional batzuek arrantza-tokiotan duten garrantzia ikusita.

Sektorearen antolamendua Estatuak eta autonomia erkidegoek elkarrekin duten ataza da, arrantza-sektorea antolatzeke lege-garapen eta exekuziorako eskumenaren bitartez. Ildo horretatik, hauxe azpimarratu behar da: eremu berean diharduten pertsonen gainean, eremu horretan garatu eta ondorio juridikoak dituzten jardueren gainean, bidezko dela eskumen ezberdinak irudikatzea, eta eskumen horiek organo ezberdinei esleitzea. Hori dela eta, dekretu honek asteko atsedena ere arautu du, barruko uren barnealdean zein kanpoaldean, arrantza-sektorearen antolamenduak ez baitu barruko uretara zertan mugatu, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuko kostara guztia har dezake eta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10. artikuluan 10. idatz-zatiak ezarri duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eksklusiboa du barruko uretako arrantza, itsaskien harrapaketa eta akuikulturaren alorretan. Eskumen hori garatuz, martxoaren 13ko 6/1998 Legea, itsas arrantzari buruzkoa, egin zen. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegorako lege-markoa ezarri dio arrantzari, eta jarduera horren helburuak eta gidalerroak finkatu. Alegia, arrantzan aritzeko behar zen kohesio materiala eta lege-marko egokiak taxutu ditu. Hain zuzen ere, dekretu honek lege-marko horren esparrua baitu eskumen-oinarri.

Martxoaren 13ko 6/1998 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko itsasabazterrean erabiltzeko diren arrantzarako tresnak, aparailuak eta abar arautuko ditu. Beraz, dekretu honek legeak ezarritakoa garatu, eta arrantza-tresna xumeak arautu ditu.

Ildo horretatik, dekretu honen helburua da eskuarki arrantza-tresna xumetzat jotakoekin egiten den arrantza arautzea, artisau-izaera nabarmena baitu, eta gizarte-garrantzia handia Bizkaiko itsasoko eta Iparmen-

el ekosistema marino y tomando en consideración, en particular, tanto las necesidades de los productores como las de los consumidores.

La regulación de las dimensiones mínimas de las mallas de las redes de enmalle en las aguas comunitarias y, entre ellas, las de la Región 3 en la que se engloba el Caladero del Cantábrico y Noroeste, han sido reguladas por el Reglamento (CE) 850/98, del Consejo, de 30 de marzo, para la conservación de los recursos pesqueros a través de medidas técnicas de protección de los juveniles de organismos marinos.

A su vez, el Real Decreto 1683/1997, de 7 de noviembre, ha procedido a la regulación de la pesca con artes menores en las aguas exteriores del Caladero Nacional del Cantábrico y Noroeste y la Orden de 1 de octubre de 1998 establece un plan de actividad pesquera en determinada zona del litoral Cantábrico en atención a las especies características de las pesquerías locales de Gipuzkoa y Bizkaia y la importancia económica de ciertas modalidades pesqueras tradicionales de estos caladeros.

La ordenación del sector es tarea compartida entre el Estado y las Comunidades Autónomas, en virtud de la competencia para el desarrollo legislativo y ejecución en lo relativo a la ordenación del sector pesquero. En este sentido, es necesario señalar que sobre las personas actúan en un mismo ámbito y las actividades jurídicamente relevantes que en él se desarrollen, es posible concebir distintas competencias atribuibles a también distintos órganos. Por ello, el presente Decreto establece la regulación del descanso semanal dentro y fuera de las aguas interiores, dado que la ordenación del sector pesquero no tiene por qué limitarse a las aguas interiores sino que puede alcanzar a toda la costa del ámbito territorial del País Vasco.

De conformidad con lo establecido en el Estatuto de Autonomía en su artículo 10, apartado 10, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de pesca en aguas interiores, marisqueo y acuicultura. En desarrollo de esta competencia, se dictó la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de pesca marítima, que configura para el País Vasco el marco legal y fija los objetivos y líneas directrices para el ejercicio de la actividad pesquera, dotándola de la necesaria cohesión material y del marco legal adecuado para la práctica de la misma, siendo este el marco competencial en virtud del cual se establece la presente norma.

La Disposición Adicional Segunda de la Ley 6/1998, de 13 de marzo, establece que el Gobierno Vasco procederá a reglamentar las artes, equipos, etc., en el litoral del País Vasco, dictándose el presente Decreto por el que se regulan las artes menores en desarrollo de lo estipulado en la mencionada Ley.

En este sentido, el presente Decreto tiene la finalidad de regular la actividad pesquera de las modalidades de pesca tradicionalmente conocidas como artes menores, de marcado carácter artesanal, que tienen gran

debaldeko itsasbazerretan. Arrantza-tresna xumez baliatzen den euskal ontzidua ontzi profesional txikiek osatzen dute, eta zapalda kontinentaleko eta kontinentezpondako arrantza-tokietan dihardute arrantzan, artisa-tresnak lanabes. Marea laburrak egiten dituzte, egun bakarrekoak normalean, eta inguruko kosta-baliabideei eragiten dietenez, bidezko da arrainketa horiek arautuko dituen dekretua ematea.

Dekretuak, beraz, 15. artikulua eta bi azken xedapen ditu. Jarduera arautzeko xedapen orokorrak ezarri, eta arrantza-tresna xumeak definitu dira artikuluan, Estatuko eta Europako Batasuneko arauekin uztartzeko asmoz, arrantza-mota honetan gerta daitezkeen arau-hausteak eraginkorrago kontrolatzearen.

Gerta daitezkeen arau-hausteak martxoaren 13ko itsas arrantzari buruzko 6/1998 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

Ondorioz, arrantza-sektoreko lanbide-antolamenduei kontsulta eginda, Eusko Jaurlaritzako Batzorde Juridiko Aholku-emailearekin adostu eta gero, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Lehendakari onarturik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluan 2000ko urriaren 24ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

##### 1. artikulua.— Xedea.

Dekretu honen xedea da arrantza-tresna xumez baliatzen den arrantzak arau izango dituenak ezartzea, arrantza-tresnen zehaztasun teknikoak finkatzea, eta arrantza-tresna horiekin Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasbazerreko uretan egiten den arrantza-ahalegina erregulatzea.

##### 2. artikulua.— Baimendutako arrantza-tresnak.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko uretan erabil daitezkeen arrantza-tresna honela sailkatzen dira: mailasareak (edo sare zuzenak), amu-aparailuak eta otarreak (nasak).

2.— Mailasareen barruan, mailabakarrak eta tresmailak erabil daitezke, eta zorrozki debekatuta dago zapo-sarea eta bolanta (hondoko mailasarea) erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko uretan.

##### 3. artikulua.— Mailasareak.

1.— Mailasareak arrantza-tresnak dira, sare-mami edo sare-oihal batez edo gehiagoz osatuta, sare-oihalok bi arlinga artean armatuta edo prestatuta daudela; goiko arlingak flotazio-elementuak ditu eta beheko arlingak, aldiz, lastak. Bertikalean askatu edo botatzen dira, eta beheko arlingak eta goikoak errektangelua edo laukizuzena eratzen dute; tresnaren muturretan lokarriak edo

importancia social en el litoral del Cantábrico y Noroeste. La flota de artes menores vasca está compuesta por embarcaciones profesionales de pequeño porte que faenan con artes de pesca artesanales en los caladeros de la plataforma y del talud continental, que efectúan mareas de poca duración, generalmente de un día, con una repercusión sobre los recursos costeros de la zona, lo que hace conveniente la promulgación del presente Decreto que regule esas pesquerías.

El presente Decreto se articula en 15 artículos y dos Disposiciones Finales. En dichos artículos se establecen las normas generales de regulación de la actividad y se definen las artes menores, buscando la armonización en esta materia con la regulación estatal y comunitaria, en aras a un control más eficaz de las infracciones que se puedan cometer en el ejercicio de esta actividad pesquera.

Las infracciones que se cometan serán sancionadas de conformidad con lo establecido en los artículos 47 y siguientes de la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de pesca marítima.

Por todo lo expuesto, consultadas las organizaciones profesionales del sector pesquero, (de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora), a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa aprobación del Lehendakari y aprobación y deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de octubre de 2000,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.— Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto establecer las normas por las que se debe regir el ejercicio de la pesca con artes menores y las características técnicas de los mismos, así como la regulación del esfuerzo de pesca ejercido con dichos artes en las aguas del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

##### Artículo 2.— Artes autorizados.

1.— Los artes que pueden ser utilizados en las aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco se clasifican en artes de enmalle, aparejos de anzuelo y nasas.

2.— Dentro de los artes de enmalle se autoriza la utilización de betas o mallabakarras y trasmallos, quedando estrictamente prohibido el uso del rasco y la volante en las aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

##### Artículo 3.— Artes de enmalle.

1.— Son artes de enmalle los artes formados por uno o más paños de red armados entre dos relingas, la superior provista de elementos de flotación y la inferior de lastres. Se calan en posición vertical formando un rectángulo entre la relinga inferior y la superior, disponiendo los extremos del arte, llamados cabeceros, de cabos guías unidos por su parte alta a boyas de superficie y

sokak daude, goiko aldetik urazaleko buia edo kulubizei lotuta, eta beheko aldetik ainguratze- edo lazta-sistema bati, arrantza-tresnak toki berean egon daitezzen, urperatzen direnetik uretatik atera arte.

2.– Mailasareak hurrengo motatan sailkatzen dira:

- a) mailabakarra
- b) tresmaila

2.1.– Mailabakarra.

Mailabakarra da mailasare bat, hondoari estekatua, elkarriz lotutako pieza batek edo gehiagok osatua, horietako bakoitza sare-mami edo sare-oihal bakar batek osatua, mailasare errektangeluarra eratzen duena.

Tresna hori 4.500 metro luze izango da, gehienez ere, eta hiru metro garai.

2.2.– Tresmaila.

Tresmaila da mailasare edo sare zuzen bat, hondoari estekatua, arlinga berari lotutako hiru sare-oihal gainjarriz osatua.

Aparailu edo tresna hori 4.500 metro luze izango da, gehienez ere, eta hiru metro garai, barruko oihalaren maila 90 milimetro edo gehiago denean; barruko oihalaren maila 90 milimetro baino gutxiago dutenak, aldis, bi metro garai izango dira, gehienez ere.

3.– Mailaren neurriak:

Mailaren dimentsioa neurtzeko prozedura Kontseiluak 1997ko apirilaren 29ko 894/97 (EE) Erregelamenduan ezarritakoa izango da. Izan ere, Erregelamendu horrek arrantza-baliabideei eusteko neurri teknikoak ezarri ditu, eta Kontseiluak 1998ko ekainaren 8an emandako 1239/98 (EE) Erregelamenduak aldatu du.

Mailaren dimentsioa maila tenkatuaren tarteari edo zuloari dagokio, sarea erabilita eta bustita dagoela.

Mailasareen mailaren gutxieneko neurriak men egin beharko dio Kontseiluak 1997ko apirilaren 29ko 894/97 (EE) Erregelamenduak ezarritakoari. Izan ere, Erregelamendu horrek arrantza-baliabideei eusteko neurri teknikoak ezarri ditu, eta hurrengo arauak aldatu dute: Kontseiluak 1998ko ekainaren 8an emandako 1239/98 (EE) Erregelamenduak, eta Kontseiluak 1998ko martxoaren 30ean 850/98 (EE) Erregelamenduak; azken arau horrek arrantza-baliabideak zaintzea du xede, itsas-organismoen ale gazteak babesteko neurri teknikoen bitartez, helburu-espezieen arabera (VII. taula – Arrantza tresna finkoak –3. eskualdea), Dekretu honen II. eranskin gisa jarri baita.

4. *artikulua.*– Amu-aparailuak.

1.– Amu-aparailu edo amu-tresnatzat hartuko dira funtsean ehunezko sokaz edo lokarriz eta amuz osatzen direnak, hainbat modalitatetan.

2.– Amua oinarrizko elementutzat duten aparailuen artean, hurrengoak bereizten dira:

por su parte baja a un sistema de fondeo con el fin de que permanezcan en la misma posición desde que se calan hasta que se leván.

2.– Las artes de enmalle se clasifican en los siguientes tipos:

- a) beta o mallabakarra
- b) trasmallo

2.– 1.– Beta o mallabakarra.

La beta o mallabakarra es un arte de enmalle fijo al fondo, constituido por una o varias piezas unidas entre sí, cada una formada por un solo paño de red, formando un arte de enmalle rectangular.

El arte tendrá una longitud máxima de 4.500 metros y una altura máxima de 3 metros.

2.– 2.– Trasmallo.

El trasmallo es un arte o aparejo de enmalle fijo al fondo, formado por tres paños de red superpuestos cosidos a la misma relinga.

El arte tendrá una longitud máxima de 4.500 metros y una altura máxima de 3 metros para los trasmallos de malla igual o superior a 90 milímetros en el paño interior y una altura máximo de 2 metros en los trasmallos de malla inferior a 90 milímetros en el paño interior.

3.– Dimensiones de malla:

El procedimiento de medida de la dimensión de malla será el establecido en el Reglamento (CE) n.º 894/97, del Consejo de 29 de abril de 1997, por el que se establecen determinadas medidas técnicas de conservación de los recursos pesqueros, modificado por el Reglamento n.º (CE) 1239/98, del Consejo, de 8 de junio de 1998.

La dimensión de la malla corresponde a la luz de malla estirada, estando la red usada y mojada.

La dimensión mínima de malla de las artes de enmalle deberá atenerse a lo establecido por el Reglamento (CE) n.º 894/97, del Consejo de 29 de abril de 1997, por el que se establecen determinadas medidas técnicas de conservación de los recursos pesqueros, modificado por el Reglamento n.º (CE) 1239/98, del Consejo, de 8 de junio de 1998, y por el Reglamento (CE) 850/98, del Consejo, de 30 de marzo, para la conservación de los recursos pesqueros a través de medidas técnicas de protección de los juveniles de organismos marinos, según especies objetivo (Tabla VII – Artes Fijos –Región 3), que se incorpora como Anexo II en el presente Decreto.

*Artículo 4.*– Aparejos de anzuelo.

1.– Se entiende por aparejo de anzuelo, aquellos sistemas de pesca compuestos básicamente por cabos de fibra y anzuelos, en sus diversas modalidades.

2.– Entre los aparejos cuyo elemento básico es el anzuelo se distinguen los siguientes:

a) Haria, beste izen batzuk ere badituena, egituraren eta zer espeziatarako erabiltzen denaren arabera — besteak beste, soldau-aparailua, sabia, mokoiloa, txankua, kanabera, pintxoa—, aparailu edo tresna bertikala da, subil edo kordel ama batez osatua; subilari lotuta, zintzilik, potxerak edo pitak (amuhariak) daude, eta amua daramate puntan. Esku-aparailuak edo kanabera-aparailuak izan daitezke.

b) Koraina edo aborina ere aparailu bertikala da, eta haren azpiko muturretik elementu lastatu bat dago zintzilik, dizdiratsua edo kolore bizikoa normalean, hainbat amurekin.

c) Kazako edo xaxiango arrantzarako aparailuak tresna horizontalak dira, harrapatu behar den espeziea katzeko lastertasun egokian doan ontzi batek atoian eramatzen dituenak. Kazako edo xaxiango aparailuak kainaberatan edo sarde edo botaberetan armatuta edo presatuta daude.

d) Tretzatxoa amu-aparailua da, subil edo kordel ama batez osatua; subilari lotuta, potxera bertikalak daude zintzilik, behar bezala aldentuta. 2.000 metro luze izango da, gehienez ere, eta amu-kopurua ez da mila unitate baino gehiago izango. Potxeren arteko gutxieneko aldea metro bat izango da. Helburu-espezieen talde bakoitzarentzako amuen gutxieneko neurria Dekretu honen eranskinean zehaztuko da.

### 5. *artikulua*.— Otarreak (nasak).

1.— Otarrean hondoko tresna finkoak dira, otzara edo kaiola moduan eratuak, hainbat materialez eginak, sare estalitako armazoi zurrin batez osatuak. Irekigune edo zulo bat edo batzuk izaten dituzte, punta zorrotzik gabeko mutur leunekin, hainbat espezieri aparailuak edo tresnak osatzen duen barrunbera sartzeko aukera ematen diena, aparailuaren barruko beitak erakarrita.

2.— Otarreak bota edo urperatzeko aparailuan, otarre bakoitza subil deritzon arlinga bati lotzen zaio, tarre erregulara.

3.— Debekatuta dago otarreak ontzian eduki eta arrainak harrapatzeko erabiltzea; hala ere, azken hiru urteotan arrainak otarreekin harrapatu dituztela egiaztatzen duten ontziek bere jarduera horri ekin diezaiokete, otarren balio-bizitzak dirauen.

4.— Otarre-tresnen gehienezko luzera 3.000 metro izan daiteke, guztira, eta ontzi bakoitzak ezin izango ditu 350 otarre baino gehiago izan.

### 6. *artikulua*.— Gipuzkoako arrantza-plana.

1.— Dekretu honek dakartzan arauak aplikatuko zaizkion arrantza-zonak hurrengo arteko urak hartzen ditu: Saturrarango punta, 002.º 24,7'W longitudean, eta Frantziarekin muga egiten duen itsas lerroaren artekoak.

a) La línea, que recibe otros nombres dependiendo de su estructura y de las especies a las que vayan dirigidas tales como cordel, liña, caña, pincho, entre otras, es un aparejo vertical constituido por una línea madre, de la que penden brazoladas o sedales con anzuelos; pudiendo ser la línea de mano y de caña.

b) La potera es un aparejo de línea vertical de cuyo extremo inferior pende un elemento lastrado, generalmente brillante o de colores vivos, provisto de varios anzuelos.

c) La cacea al currican son aparejos de línea horizontal, que se remolcan por una embarcación que navega a la velocidad apropiada para dar caza a la especie a capturar. Los aparejos o curricanes van armados sobre cañas o tangones.

d) El palangrillo es un aparejo de anzuelo que consta de un cabo madre horizontal del que penden brazoladas verticales, convenientemente separadas. Es de estructura similar a la del palangre, del que se diferencia por sus menores dimensiones. La longitud máxima permitida será de 2.000 metros y el número máximo de anzuelos no excederá de 1.000 unidades. La distancia mínima entre brazoladas será de 1 metro. El tamaño mínimo de los anzuelos para cada grupo de especies objetivo se especifica en el anexo al presente Decreto.

### *Artículo 5*.— Nasas.

1.— Las nasas son artes fijos de fondo, constituidos en forma de cesto o jaula, de diversos materiales, compuestas por un armazón rígido recubierto de red. Están provistas de una o más aberturas o bocas de extremos lisos no punzantes que permiten la entrada de las distintas especies al interior del habitáculo que forma el arte, atraídas por el cebo colocado en su interior.

2.— Las nasas se calan mediante un aparejo denominado tanda, tren o cacea, en el que cada nasa se une a una relinga llamada madre a intervalos regulares.

3.— Queda prohibida la tenencia a bordo y la utilización de nasas dirigidas a la captura de peces; no obstante, aquellos buques que acrediten haber practicado la pesca con nasas para peces durante los últimos tres años, podrán continuar su actividad durante su vida útil.

4.— La longitud máxima total de los artes de nasas será de 3.000 metros, no pudiendo exceder en ningún caso de un máximo de 350 nasas por embarcación.

### *Artículo 6*.— Plan de pesca de Gipuzkoa.

1.— La zona de pesca a la que se aplicarán las normas contenidas en el presente Decreto abarca a las aguas comprendidas entre Punta Saturrarán, en longitud 002.º 24,7'W y la línea marítima fronteriza con Francia.

2.– Baimendutako sareen gehieneko luzera ontzien esloran araberakoa izango da. Hurrengo izango litzateke:

a) 3.000 metro, perpendikularren arteko eslora 10 metro baino gutxiago duten ontzientzat.

b) 4.500 metro, perpendikularren arteko eslora 10 metro edo gehiago duten ontzientzat.

**7. artikulua.**– Bizkaiko arrantza-plana.

1.– Dekretu honek dakartzan arauak aplikatuko zaizkion arrantza-zonak hurrengo arteko urak hartzen ditu: Saturrarango punta, 002.º 24,7' W longitudean, eta Kantabria eta Bizkaia banatzen dituen lerroaren artekoak.

2.– Zona honetako arrantza hurrengo itsasertz-segmentuen arabera egingo da:

a) Kantabria eta Bizkaia banatzen dituen lerroaren eta Villano lurmuturraren arteko itsasbazterra.

Mailabakarra eta tresmaila erabil daitezke, gehienez ere 40 brazako (73,2 metro) sakoneran, mareabehera eskoratu abiapuntutzat hartuta. Bi brazako tolerantzia izango da.

b) Villano lurmuturraren eta Matxixakoren arteko itsasbazterra.

Mailabakarra eta tresmaila erabil daitezke, gehienez ere 30 brazako (55 metro) sakoneran, mareabehera eskoratu abiapuntutzat hartuta. Bi brazako tolerantzia izango da.

c) Matxixako lurmuturraren eta Earen arteko itsasbazterra.

Tresmaila erabil daiteke, gehienez ere 30 brazako (55 metro) sakoneran, mareabehera eskoratu abiapuntutzat hartuta; mailabakarra ere erabil daiteke, gehienez ere 30 brazako (55 metro) sakoneran, mareabehera eskoratu abiapuntutzat hartuta. Bi brazako tolerantzia izango da azken kasu horretan.

d) Ea eta Saturrarango puntaren arteko itsasbazterra.

Mailabakarra erabil daiteke, gehienez ere 40 brazako (73,2 metro) sakoneran, mareabehera eskoratu abiapuntutzat hartuta; tresmaila ere erabil daiteke, gehienez ere 30 brazako (55 metro) sakoneran, mareabehera eskoratu abiapuntutzat hartuta. Bi brazako tolerantzia izango da bi modalitateetan.

3.– Arrantza-tresna askatu, bota edo lagatzeko arauak.

a) Eguneko etxada edo botaldi bakarria egin ahal izango da.

b) Mailabakarra egunean behin botako da, egunsentian edo arratsaldean, baina ezin izango du gauez askatuta egon. Hala ere, 90 milimetro edo gehiagoko maila dutenak 24 orduz egon daitezke askatuta edo botata, gehienez ere.

2.– La longitud máxima de las redes autorizadas dependerá de la eslora de los buques, y sería la siguiente:

a) 3.000 metros para los buques inferiores a 10 metros de eslora entre perpendiculares.

b) 4.500 metros para los buques iguales o superiores a 10 metros de eslora entre perpendiculares.

**Artículo 7.**– Plan de pesca de Bizkaia.

1.– La zona de pesca a la que se aplicarán las normas contenidas en el presente Decreto afecta a las aguas comprendidas entre Punta Saturrarán, en longitud 002.º 24,7' W y la línea divisoria entre Cantabria y Bizkaia.

2.– La regulación de la pesca en esta zona se realiza conforme a los siguientes segmentos de litoral:

a) Litoral comprendido entre la línea divisoria entre Cantabria y Bizkaia y Cabo Villano.

Se autoriza la utilización de la beta o mallabakarra y del trasmallo con una profundidad máxima de calado de 40 brazas (73,2 metros) sobre la bajamar escorada, y una tolerancia de dos brazas.

b) Litoral comprendido entre Cabo Villano y Matxixako.

Se autoriza la utilización de la beta o mallabakarra y del trasmallo con una profundidad máxima de 30 brazas (55 metros) sobre la bajamar escorada, y una tolerancia de dos brazas.

c) Litoral comprendido entre Cabo Matxixako y Ea.

Se autoriza la utilización del trasmallo y con una profundidad máxima de 30 brazas (55 metros) sobre la bajamar escorada así como de la beta o mallabakarra, con una profundidad máxima de 30 brazas (55 metros) sobre la bajamar escorada y una tolerancia de dos brazas.

d) Litoral comprendido entre Ea y Punta Saturrarán.

Se autoriza la utilización de la beta o mallabakarra con una profundidad máxima de 40 brazas (73,2 metros) sobre la bajamar escorada y del trasmallo con una profundidad máxima de 30 brazas (55 metros) sobre la bajamar escorada, y una tolerancia de dos brazas en ambos casos.

3.– Normas de calamento.

a) Solamente podrá efectuarse un lance al día.

b) La beta o mallabakarra se calará una vez al día, bien al alba, bien por la tarde, pero no podrá permanecer calada durante la noche. No obstante, las que tengan malla igual o superior a 90 milímetros podrán permanecer caladas un máximo de veinticuatro horas.

4.– Arrantza-tresnen gehienezko luzera.

Arrantza-tresnen luzera inolaz ere ez da 4.500 metro baino gehiago izango.

**8. artikulua.**– Aparailu eta tresnen balizamendua.

1.– Tresna eta aparailu finkoak bi muturretan baliatzatuko dira, buia, kulubiz edo tuntux gorri kolorekoekin, zeinak radar-erreflektoreak eta masta bertikal bat —gutxienez bi metro luze— izango baitute. Mastak bandera gorria izango du, 50x40 zentimetro, eta argi zuria gauzez, bi miliatara ikusteko modukoa. Tresna finkoen luzera 2 milia baino gehiago bada, balizamendu bera erabiliko da milia banako tarteka.

2.– Iparrerago edo mendebalderago dagoen tresnamuturrak, gaua ala eguna den, bata bestearen gaineko bi bandera edo bi argi zuri eramango ditu, lehen esandako neurri-ezaugarriekin.

3.– Buia edo kulubizek agerian duten aldean ontziaren matrikula eta folioa agertuko dira, baita zer arrantza-tresna mota den ere. Arrantza-tresna hurrengo leterekin adieraziko da: (B) mailabakarra, (T) tresmaila, (A) aparailuak eta (N) otarreak edo nasak.

**9. artikulua.**– Debekatuta dago arrantza-tresna xumeak bota, laga edo askatzea:

a) 5,46 braza (10 metro) baino gutxiagoko sakoneran, mareabehera eskoratua abiapuntutzat hartuta, edo lehorretik 100 metro baino hurbilago.

b) Beste arrantza-tresna edo aparailu profesional urperatutik 100 metro baino gutxiagora.

c) Portuetan, portuen bokaleetan edo portuetara sartzeko kanaletan, eta portu-zonetan.

d) Bainua hartzeko tokietan, lehorretik 500 metro-ra. Itsas-trafikoaren ohiko bideetan.

e) Nabigazioko ohiko itsasbideetan.

f) Nabigazioari traba egin diezaiokeen beste edozein tokitan.

**10. artikulua.**– Baimendutako ontzien zentsua.

Tresna xumeeekin arrantzan aritzeko baimena izango dute hurrengo baldintzak betetzen dituzten ontziek:

a) Jarduneko Arrantza Ontzidiaren Zentsuan inskribatuta egotea.

b) Bizkaiko itsasoko eta Iparmendebaldeko arrantza-toki nazionaleko tresna xumeen zentsuaren barruan izatea.

c) Ontzien motoreen gehieneko potentzia 250 CV izango da, eta perpendikularren arteko eslora ez da 15 metro baino gehiago izango, edo, bestela, guztizko eslora ez da 18 metro baino gehiago izango.

d) Arrantza-tresna xumeez baliatzeko eraikitako ontzi berriek 5 metroko guztizko eslora izango dute, gutxienez, eta gutxienezko tonajea edo edukiera 1,5 GT edo 2,5 ETG.

4.– Longitud máxima de los artes.

En ningún caso la longitud de los artes podrá superar los 4.500 metros.

**Artículo 8.**– Balizamiento de los aparejos y artes.

1.– El balizamiento de los artes y aparejos fijos se efectuará en ambos extremos mediante boyas de color rojo, provistas de reflector de radar y de un mástil vertical de 2 metros de altura como mínimo, en el que incorporará bandera roja de 50 por 40 centímetros y luz blanca durante la noche visible a una distancia de 2 millas. En caso de que la longitud de los artes fijos supere las 2 millas, se balizarán de idéntica manera a intervalos de 1 milla.

2.– El cabecero situado más al norte o más al oeste llevará, según sea de noche o de día, dos banderas superpuestas verticalmente o dos luces blancas de las medidas o características anteriormente señaladas.

3.– En la parte visible de las boyas figurarán la matrícula y folio de la embarcación así como la indicación del tipo de arte, que se hará constar mediante iniciales de acuerdo con la siguiente clave: (B) betas o mallabakarras, (T) trasmallos, (A) aparejos y (N) nasas.

**Artículo 9.**– Queda prohibido el calamento de las artes menores:

a) A una profundidad inferior a 5,46 brazas (10 metros) sobre la bajamar escorada ó a una distancia de 100 metros de la costa.

b) A menos de 100 metros de otro arte o aparejo de pesca profesional calado.

c) En los puertos, bocanas o canales de acceso a los puertos así como en las zonas portuarias.

d) En las zonas de baño, a 500 metros de la costa.

e) En las derrotas usuales de tráfico marítimo.

f) En cualquier lugar que pudiera dificultar la navegación.

**Artículo 10.**– Censo de buques autorizados.

Están autorizados a ejercer la pesca con artes menores los buques que reúnan los siguientes requisitos:

a) Figurar inscritos en el Censo de Flota Pesquera Operativa.

b) Estar incluidos en el censo de artes menores del Caladero Nacional del Cantábrico y Noroeste.

c) La potencia máxima de los motores de las embarcaciones será de 250 CV y la eslora no podrá ser superior a 15 metros entre perpendiculares o a 18 metros de eslora total.

d) Las embarcaciones de nueva construcción destinadas a ejercer la pesca con artes menores deberán tener un mínimo de 5 metros de eslora total y un arqueo mínimo de 1,5 GT o 2,5 TRB.

**11. artikulua.**— Arraun ontziak eta bela ontziak.

Arraun ontziek eta bela ontziek debekatuta dute barruko uretan arrantzan aritzea.

**12. artikulua.**— Asteko atsedinari buruzko arauak.

1.— Dekretu honen barruan sartzen diren arrantza-tresna eta aparailu urperatuak, barruko uren barnealdean zein kanpoaldean egonda ere, urpetik aterata egon beharko dira larunbateko zero ordutik igandeko hogeitalauetara bitartean, eta portura eramango dira.

2.— Betebehar honetatik salbuetsita daude tunidoak kazan edo xaxian harrapatzen diharduten ontziak.

**13. artikulua.**— Arrantza-tresnen txandaketa.

1.— Tresna edo aparailu xumeekin arrantzan aritzea baimena duten ontziek Dekretu honetako 3, 4, eta 5. artikuluetan definituriko tresna-aparailuak erabil ditzakete (mailasareak, amu-aparailuak eta otarreak).

2.— Arrantzaldi edo arrantza-egun bakoitzean arrantza-modalitate bakarra baino ezin izango da erabili (mailasareak, amuak edo otarreak).

3.— Arrantza-tresna edo aparailu baten edo batzuen baimendutako kopuru guztizkoen multzoak, multzotzat hartuz gero barruko uren barnealdean zein kanpoaldean erabilitako arrantza-tresnen batura, ezin izango ditu ezarritako mugak gainditu, inolaz ere:

- Mailasareak: gehienez ere, 4.500 metro;
- Amu-aparailuak: gehienez ere, 2.000 metro edo 1.000 amu;
- Otarreak: ontzi bakoitzeko 350, gehienez ere.

**14. artikulua.**— Modalitatea aldi baterako aldatzea.

Organo eskumendunak hurrengoak baimen ditzake, sei hilabete gainditzen ez duten aldietarako: arrantza-tresna xumeekin egindako arrantza-modutik baimendutako beste arrantza-mota batzuetara aldi baterako aldatzea, eta baimendutako beste arrantza-mota horietatik arrantza-tresna xumeekin egiten denera, baina, betiere, jardueraren xede diren baliabideen egoerak horretarako aukera ematen badu.

**15. artikulua.**— Arau-haustek eta zehapenak.

Dekretu honek xedatuaren aurkako arau-haustek Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legearen arabera zigortuko dira.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lebenengoa.**— Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu honetan ezarritakoa garatzeko xedapenak eta neurriak har ditzan.

**Artículo 11.**— Embarcaciones a remo o vela.

Esta prohibido en las aguas interiores el ejercicio de actividades pesqueras a las embarcaciones a remo o vela.

**Artículo 12.**— Regulación del descanso semanal.

1.— Los aparejos y artes de pesca incluidos en el presente Decreto calados, dentro y fuera de las aguas interiores, deberán ser retirados de su calamento desde las cero horas del sábado hasta las veinticuatro horas del domingo, debiendo ser transportados a puerto.

2.— Se excluye de esta obligación a las embarcaciones que estén dedicándose a la pesca de túnidos a la caea.

**Artículo 13.**— Alternancia de artes.

1.— Las embarcaciones autorizadas para ejercer la pesca con artes menores podrán practicarla con los artes y aparejos definidos en los artículos 3, 4 y 5 del presente Decreto (artes de enmalle, aparejos de anzuelo y nasas).

2.— Durante la misma jornada de pesca sólo podrán ejercer la actividad pesquera en una sola modalidad (enmalle, anzuelo o nasas).

3.— En ningún caso, la cantidad total permitida de uno o varios artes o aparejos en su conjunto considerándose este como la suma de artes empleadas tanto dentro como fuera de aguas interiores podrá rebasar los límites establecidos:

- Enmalle, hasta un total de 4.500 metros;
- Aparejos de anzuelo, hasta 2.000 metros ó 1.000 anzuelos;
- Nasas, hasta un máximo de 350 por embarcación.

**Artículo 14.**— Cambios temporales de modalidad.

Los cambios temporales de modalidad de artes menores a otras permitidas y de otras modalidades a artes menores, siempre y cuando el estado de los recursos a los que pretendan dirigir su actividad lo permitan, podrán ser autorizados por el órgano competente, para periodos de tiempo no superiores a seis meses.

**Artículo 15.**— Infracciones y sanciones.

Las infracciones a lo dispuesto en este Decreto serán sancionadas de acuerdo con lo establecido en la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de pesca marítima.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.**— Se faculta al Consejero de Agricultura y Pesca para adoptar las disposiciones y medidas que sean necesarias para el desarrollo del presente Decreto.



**Bigarrena.**– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko urriaren 24an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

### I. ERANSKINA

Amuen gutxieneko neurria

Amuen gutxieneko neurriak, bai luzerari, bai bihurguneari dagokienean, ezin izango dira ondoren aipatzen diren dimentsioak baino txikiagoak izan, helburu-espezia edo helburu-espezieen taldea zein den:

Espezie-mota eta taldea	luzera (cm)	bihurgunea (cm)
a) itsas aingira, mero beltza, meroa	6,00 +/- 0,50	2,00 +/- 0,20
b) legatza, itsas potxua, bisigua, abadira, lupia, paneka, muxarra, berdelata eta gainerako espezieak	3,50 +/- 0,30	1,50 +/- 0,20

<i>Tipo y grupo de especies</i>	<i>longitud (cm)</i>	<i>seno (cm)</i>
a) <i>congrío, cherna, mero</i>	6,00 +/- 0,50	2,00 +/- 0,20
b) <i>merluza, palometa, besugo abadejo, lubina, faneca, sargo, caballa y resto de especies</i>	3,50 +/- 0,30	1,50 +/- 0,20

Amuen neurria luzeraren eta bihurgunearen arabera finkatuko da. Luzeratzat hartuko da amu-palaren edo artzabiaren goiko muturraren eta amu-oinarriaren tangente horizontalaren arteko distantzia. Bihurgunetzat hartuko da garrangaren goiko muturraren eta kirtenaren barruko ertzaren arteko irekidura horizontala.

**Segunda.**– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de octubre de 2000.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,  
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

### ANEXO I

Tamaño mínimo de los anzuelos

Los tamaños mínimos de los anzuelos tanto en longitud como en seno no podrán ser inferiores a las dimensiones que a continuación se señalan, según la especie o el grupo de especies objetivo:

El tamaño de los anzuelos se determinará por su longitud y por su seno. Se entiende por longitud la distancia comprendida entre el extremo superior de la patilla y la tangente horizontal a la base del anzuelo. Se entiende por seno la abertura horizontal comprendida entre el extremo superior de la agalla y el borde interior de la caña.

## II. ERANSKINA

(«VII. taula – Arrantza-tresna finkoak –3. eskualdea». Kontseiluaren martxoaren 30eko 850/98 (EE) Erregelamendua, arrantza-baliabideak itsas-organismoen ale gazteak babesteko neurri teknikoen bitartez zaintzeari buruzkoa)

Maila Espeziea	<40 mm	40-49 mm	50-59 mm	60-79 mm	80-99 mm	100 mm
Sardina ( <i>Sardina pilchardus</i> )	X	X	X	X	X	X
Ganbak ( <i>Palaemon</i> spp.)	X	X	X	X	X	X
Dontzeila ( <i>Coris julis</i> )	X	X	X	X	X	X
Boga ( <i>Boops boops</i> )	X	X	X	X	X	X
Otarraiskak ( <i>Penaeus</i> spp.)		X	X	X	X	X
Squilla mantis		X	X	X	X	X
Barbarinak ( <i>Mullidae</i> )		X	X	X	X	X
Lengoradu buruhandia ( <i>Dicologlossa cuneata</i> )		X	X	X	X	X
Labridoak (durdoiak) ( <i>Labridae</i> )		X	X	X	X	X
Txitxarroak ( <i>Trachurus</i> spp.)			X	X	X	X
Berdelak ( <i>Scomber</i> spp.)			X	X	X	X
Paneka handia ( <i>Trisopterus luscus</i> )			X	X	X	X
Txokoa ( <i>Sepia officinalis</i> )			X	X	X	X
Arraingorriak (perloiak) ( <i>Triglidae</i> )			X	X	X	X
Esparidoak ( <i>Sparidae</i> )				X	X	X
Krabarrokak ( <i>Scorpaenidae</i> )				X	X	X
<i>Microchirus acevia</i>				X	X	X
Potak ( <i>Ommatostrephidae</i> )				X	X	X
Itsas aingira ( <i>Conger conger</i> )				X	X	X
Lotzak ( <i>Phycis</i> spp.)				X	X	X
Erreboilo ezkataduna ( <i>Scopthalmus rhombus</i> )				X	X	X
Xabiroiak (zakailak) ( <i>Trachinidae</i> )				X	X	X
Pikarelak ( <i>Centracanthidae</i> )				X	X	X

Maila Especiea	<40 mm	40-49 mm	50-59 mm	60-79 mm	80-99 mm	100 mm
Lupia ( <i>Dicentrarchus labrax</i> )					X	X
Liba ( <i>Merlangius merlangus</i> )					X	X
Erreboilo arrunta ( <i>Psetta maxima</i> )					X	X
Abadira ( <i>Pollachius pollachius</i> )					X	X
Pleuronektidoak (platuxak) ( <i>Pleuronectidae</i> )					X	X
Lengoradu arrunta ( <i>Solea vulgaris</i> ) (1)						X
Legatza ( <i>Merluccius merluccius</i> ) (1)						X
Gainerako itsas-organismo guztiak (2)						X
(1) CIEM VIIIc eta IX arrantza-zonetan, gutxieneko maila 80-90 milimetro izango da.						
(2) Ontzi barruan dauden guztizko harrapakinak %30ean gainditzen dituzten ontzi barruko zapo-harrapakinek ( <i>Lophius</i> spp.) 220 milimetro edo gehiagoko maila batekin eginak behar dute.						

## ANEXO II

(«Tabla VII – Artes Fijas –Región 3» del Reglamento (CE) 850/98, del Consejo, de 30 de marzo, para la conservación de los recursos pesqueros a través de medidas técnicas de protección de los juveniles de organismos marinos)

Malla Especie	<40 mm	40-49 mm	50-59 mm	60-79 mm	80-99 mm	100 mm
<i>Sardina</i> ( <i>Sardina pilchardus</i> )	X	X	X	X	X	X
<i>Gambas</i> ( <i>Palaemon</i> spp.)	X	X	X	X	X	X
<i>Doncella</i> ( <i>Coris julis</i> )	X	X	X	X	X	X
<i>Boga</i> ( <i>Boops boops</i> )	X	X	X	X	X	X
<i>Langostinos</i> ( <i>Penaeus</i> spp.)		X	X	X	X	X
<i>Galera</i> ( <i>Squilla mantis</i> )		X	X	X	X	X
<i>Salmonetes</i> ( <i>Mullidae</i> )		X	X	X	X	X
<i>Acedia</i> ( <i>Dicologlossa cuneata</i> )		X	X	X	X	X
<i>Lábridos</i> ( <i>Labridae</i> )		X	X	X	X	X

<i>Malla Especie</i>	<i>&lt;40 mm</i>	<i>40-49 mm</i>	<i>50-59 mm</i>	<i>60-79 mm</i>	<i>80-99 mm</i>	<i>100 mm</i>
Jureles ( <i>Trachurus</i> spp.)			X	X	X	X
Caballas ( <i>Scomber</i> spp.)			X	X	X	X
Faneca ( <i>Trisopterus luscus</i> )			X	X	X	X
Jibia ( <i>Sepia officinalis</i> )			X	X	X	X
Rubios ( <i>Triglidae</i> )			X	X	X	X
Espáridos ( <i>Sparidae</i> )				X	X	X
Rascacios ( <i>Scorpaenidae</i> )				X	X	X
Golleta acevia ( <i>Microchirus acevia</i> )				X	X	X
Potas ( <i>Ommatostrephidae</i> )				X	X	X
Congrio ( <i>Conger conger</i> )				X	X	X
Brótolas ( <i>Phycids</i> spp.)				X	X	X
Rémol ( <i>Scophtalmus rhombus</i> )				X	X	X
Arañas ( <i>Trachinidae</i> )				X	X	X
Chuclas ( <i>Centracanthidae</i> )				X	X	X
Lubina ( <i>Dicentrarchus labrax</i> )					X	X
Merlan ( <i>Merlangius merlangus</i> )					X	X
Rodaballo ( <i>Psetta maxima</i> )					X	X
Abadejo ( <i>Pollachius pollachius</i> )					X	X
Pleuronéctidos ( <i>Pleuronectidae</i> )					X	X
Lenguado ( <i>Solea vulgaris</i> ) (1)						X
Merluza ( <i>Merluccius merluccius</i> ) (1)						X
Todos los demás organismos marinos (2)						X

(1) En las divisiones CIEM VIIIc y IX, la malla mínima será de 80-90 milímetros.

(2) Las capturas de rape (*Lophius* spp.) mantenidas a bordo que superen en un 30% las capturas totales que se encuentren a bordo deberán haberse efectuado con una malla mínima igual o superior a 220 milímetros.